

➤ **Mintzamen-probaren grabazioa entzutea**

Mezu elektronikoa bidali behar duzu j-uskola@ivap.eus helbidera, zure datuak eta telefono-zenbakia jarrita. Mintzamen-saioak bikoteka grabatzen direnez, ezin izango dizugu kopiarik bidali. Beraz, IVApeko Lakuako egoitzara etorri beharko duzu **2023ko uztailaren 6an** zure saioa entzutera. Uztailaren 5ean, eguerdi aldera, mezu elektronikoz jakinaraziko dizugu, zein ordutan etorri beharko duzun **uztailaren 6an**. Mintzamen-proba entzuteko eskaerak egiteko epea **ekainaren 30etik uztailaren 1era** izango da, biak barne, **ez da onartuko epe horren aurretik edo epe horren ostean egindako eskaerarik**. Mintzamen-proba entzutera etortzen zarenean, konfidentziasun konpromisoaren inguruko dokumentu bat sinatu beharko duzu.